

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5191

EBAZPENA, 2012ko urriaren 7koa, Lanbide Heziketako zuzendariarena, teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko 2012-2013 ikasturteari dagozkion proba libreetarako deia egiten duena Euskal Autonomia Erkidegoan.

Euskal Autonomia Erkidegoan teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko probak arautzen dituen 2008ko ekainaren 19ko Aginduaren 4. artikulua honako hau xedatzen du: «Deialdiak Lanbide Heziketako zuzendariaren ebazpenen bidez gauzatuko dira. Ebazpen horietan, izen emateko aldia eta proben datak zehaztuko dira». Era berean, 2. artikulua ezartzen du proba horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxeetan egingo direla, baimenduta dituzten heziketa-zikloetan, eta betiere, araubide arruntean matrikulatutako ikasleak badituzte lehen nahiz bigarren ikasturtean.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdia.

2012-2013 ikasturteko proba libreetarako deialdia egingo da. Proba horiek arautzen dira teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko ekainaren 19ko Aginduaren bidez. Aipatutako tituluak Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren (LOGSE) ondorioz sortuak dira.

2. artikulua.– Matrikula.

2011-2012 eta 2012-2013 ikasturteetan Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren (LOE, I. eranskina) ondorioz sortutako heziketa-ziklo berriek ordezkatu dituzten heziketa-zikloen kasuan, proba horiek egiteko matrikula egin ahal izango dute (2/2006 Lege Organikoaren ondorioz sortutako ziklo berria ezartzen den ikasturtean eta hurrengoan) aurretik matrikula eginda dutenek hala heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-modulu guztietan nola lanbide-modulu horietariko bateko edozein modalitatetan. Eskakizun hori egiaztatzeko, aurkeztuko da interesduna matrikulatuta egon den ikastetxeko idazkariak igorritako ziurtagiria.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren ondorioz sortutako heziketa-ziklo berriek ordezkatzeko ez dituzten heziketa-zikloen kasuan, pertsona interesdun guztiak matrikulatu ahal izango dira probak egiteko.

Proba horien deialdiak agortu egin dira 2009-2010 eta 2010-2011 ikasturteetan ordezkaturako zikloetarako (II. eranskina).

Matrikulatu ahal izateko, artikulua honetan aipatzen diren ikasleek bete egin beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko probak arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko ekainaren 19ko Aginduan (uztailaren 14ko EHAA) ezarritako eskakizunak.

Ikasturte berean, ikasle berak ezin izango du teknikariaren eta goi-mailako teknikariaren tituluak lortzeko probetan matrikulatu autonomia-erkidego batean baino gehiagotan. Baldintza hori ez betetzeak matrikula deuseztatzea ekarriko du berekin. Egoera hori egiaztatzeko, III. eranskinen jasotzen den aitorpena bete beharko du.

3. artikulua.– Zein ikastetxetan egin ahal izango den matrikula.

Matrikula egin ahal izango da, heziketa-ziklo osorako edo lanbide-moduluetarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan, baimenduak dituzten heziketa-zikloetan, baldin eta araubide arruntean ikasleak lehen ikasturtean zein bigarrenean matrikulatuta badituzte.

2011-2012 eta 2012-2013 ikasturteetan Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren (LOE) ondorioz sortutako heziketa-ziklo berriek ordezkatu dituzten heziketa-zikloen kasuan, zein heziketa-ziklotan egin matrikula, ikastetxeek ikasleak izan beharko dituzte lanbide-ziklo horretako bigarren mailan eta ziklo hori ordezkatzeko duen heziketa-zikloko lehen ikasturtean; edo, behar izanez gero, azken ziklo horretako bi ikasturteetan.

4. artikulua.– Matrikula eta probak egiteko aldia.

Matrikula egin beharko da 2013ko martxoaren 11tik eta 22ra bitartean, bi egun horiek barne.

Probak, berriz, 2013ko ekainaren 3tik 21era bitartean –bi egun horiek barne– egingo dira, ikastetxe bakoitzak ezartzen duen egutegira egokituz.

5. artikulua.– Tasak ordaintzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoari buruzko Legearen testu bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak aipatzen dituen modalitateen bitartez ordaindu ahal izango da azterketa egiteko eskubidea. Kreditu-erakunde kolaboratzaileek lagunduko dute horretan. 2013ko martxoaren 27a izango da azterketa-eskubideak ordaintzeko azken eguna.

Matrikulak balioa izan dezan, azterketa egiteko eskubideei dagokien tasa ordaindu beharko da. 2013ko apirilaren 12an, ikastetxeko iragarki-taulan, jarriko da ikusgai tasa ordaindu duten pertsonen zerrenda. Zerrenda horretan egon litezkeen akatsak zuzentzeko, epe bat irekiko da kaltetuek erreklamazioak jar ditzaten, eta epe hori apirilaren 19an amaituko da. Maiatzaren 9an jarriko da ikusgai matrikulatu diren eta probetara aurkez daitezkeen pertsonen behin betiko zerrenda.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honetan prozedura-gaietarako arautzen ez denerako, azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa aplikatuko da, ordezeko modura (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 7a.

Lanbide Heziketako zuzendaria,
MARÍA JOSÉ MADARIAGA ROLA.

2012ko azaroaren 26a, astelehena

I. ERANSKINA

LOE ZIKLOAK, 2011-2012 IKASTURTEAN EZARRITAKOAK ETA LOGSE ZIKLOAK ORDEZKATZEN DITUZTENAK

Lanbide arloa	LOE Heziketa Zikloak	Honako LOGSE Ziklo hauen ordeez
Administrazioa eta kudeaketa	Administrazio Kudeaketa	Administrazio Kudeaketa
Nekazaritza	Nekazaritza eta Abeltzaintzako Produktzioa	Nekazaritza Ustiategi Estentsiboak Nekazaritza Ustiategi Intentsiboak Abeltzaintza Ustiategiak
Eraikuntza eta obra zibila	Lorezaintza	Lorezaintza
Elektrizitatea eta elektronika	Eraikuntza Proiektuak	Eraikuntza Proiektuen Garapena eta Aplikazioa
Ostalaritza eta Turismoa	Sistema Elektrotknikoak eta Automatizatuak	Instalazio Elektrotknikoak
Irudi pertsonala	Jatetxe-erlako Zerbitzuetako zuzendaritza	Jatetxe-arloa
Informatika eta komunikazioak	Sukaldeko Zuzendaritza	Jatetxe-arloa
Instalazioak eta Mantenimendua	Estetika eta Edergintza	Dekorazio Estetika Pertsonala
Elikagaien industriak	Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena	Informatika Aplikazioen Garapena
Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak	Beroa Sortzeko Instalazioak	Hozteko, Girotzeko eta Berotzeko Instalazioen Muntaita eta Mantentze-lanak
Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak	Hozteko eta Girotzeko Instalazioak	Hozteko, Girotzeko eta Berotzeko Instalazioen Muntaita eta Mantentze-lanak
	Elikagaien Industriako Prozesuak eta Kalitatea	Elikagaien Industria
	Arotzeria eta Altzarigintza	Arotzeria eta Altzarigintza Industriala
	Ibilgailu Automobilien Elektromekanika	Ibilgailuen Elektromekanika

LOE ZIKLOAK, 2012-2013 IKASTURTEAN EZARRITAKOAK ETA LOGSE ZIKLOAK ORDEZKATZEN DITUZTENAK

Lanbide arloa	LOE Heziketa Zikloak	Honako LOGSE Ziklo hauen ordeez
Administrazioa eta Kudeaketa	Administrazioa eta Finantzak	Administrazioa eta Finantzak
Nekazaritza	Zuzendaritzari Laguntza Ematea	Idazkari Ikasketak
Arte grafikoa	Basoa eta natura-ingurunea kudeatzea	Natura- eta Paisaia Baliabideen Kudeaketa eta Antolamendua
	Aurreinprimaketa Digitala	Arte Grafikoetako Aurreinprimaketa
	Inprimaketa Grafikoa	Arte Grafikoetako Inprimaketa

2012ko azaroaren 26a, astelehena

Lanbide arloa	LOE Heziketa Zikloak	Honako LOGSE Ziklo hauen ordeez
Merkataritza eta marketina	Merkataritza Jarduerak	Merkataritza
	Nazioarteko Merkataritza	Nazioarteko Merkataritza
	Garraioa eta Logistika	Garraioaren Kudeaketa
	Salmentak eta Merkataritza-espazioak Kudeatzea	Merkataritza-Kudeaketa eta Marketina
Elektrizitatea eta elektronika	Mantentze-lan Elektronikoa	Produktu elektronikoen garapena
	Telekomunikazio eta Informatika-sistemak	Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
	Automatizazioa eta Robotika Industrialia	Erregulazio eta Kontrol-sistema Automatikoak
	Barnealdeetako, Dekorazioko eta Birgaitzeko Obrak	Eraikuntza Akaberak
Eraikuntza eta obra zibila	Eraikuntza	Igeltsero-obrak / Hormigoizko obrak
	Obra Zibileko Proiektuak	Hirigintza Proiektuen eta Topografia-lanen Garapena
	Ile Apainketa eta Kosmetika	Ile Apainketa
	Estetika Integrala eta Ongizatea	Estetika
Irudi pertsonala	Irudi Pertsonalaren eta Korporatiboaren Aholkularitza	Irudi Pertsonaleko Aholkularitza
	Ikus-entzunezkoen eta Ikusizunen Produktzioa	Ikus-entzunezkoen, Irratiaren eta Ikusizunen Produktzioa
	Ikus-entzunezko Proiektuen eta Ikusizunen Errealizazioa	Ikus-entzunezkoen eta Ikusizunen Errealizazioa
	Ikus-entzunezkoetarako eta Ikusizunetarako Soinua	Soinua
Instalazioak eta Mantenimendua	Irudia Argiztatu, Hartu eta Tratatzea	Irudia
	Mantentze-lan Elektromekanikoa	Makinen eta Linea-eroanbideen Instalazioa eta Mantentze-lan Elektromekanikoak
	Mekatronika Industrialia	Ekipo Industrialia Mantentzea
	Instalazioa eta Altzari-hornikuntza	Neurrira Fabrikatzea
Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa	Diseinua eta Altzari-hornikuntza	Arrotzeriako eta Altzarigintzako Produktuen Garapena
	Itsas Garraioa eta Altuerako Arrantza	Itsas Nabigazioa, Arrantza eta Garraioa
Itsasoa eta Arrantza	Akuikultura	Akuikultura-produktzioa
	Hortz Protesiak	Hortz Protesiak
Osasungintza	Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arreta	Atentzio Soziosanitarioa
	Gizarte eta Kultura-zerbitzuak	Gizarte eta Kultura Animazioa

2012ko azaroaren 26a, astelehena

II. ERANSKINA

ORDEZKATUTAKO LOGSE ZIKLOAK. HAUETARAKO EZ DA PROBA LIBRERIK EGONGO

LOGE ZIKLOAK, 2009-2010 IKASTURTEAN EZARRITAKOAK ETA LOGSE ZIKLOAK ORDEZKATZEN DITUZTENAK

Lanbide arloa	LOGE Heziketa Zikloak	Honako LOGSE Ziklo hauen ordeez
Elektrizitatea eta elektronika	Instalazio Elektriko eta Automatikoak	Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak
	Mekanizazioa	Mekanizazioa
Fabrikazio mekanikoa	Soldadura eta Galdaragintza	Soldadura eta Galdaragintza
	Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programatzea	Mekanizazio Bidezko Produktzioa
	Metal-erakuntzak	Metal-erakuntzak
Ostalaritza eta turismoa	Sukaldaritza eta Gastronomia	Sukaldaritza
	Jatetxe Arloko Zerbitzuak	Jatetxe eta Tabernako Zerbitzuak
	Turismo Ostatuak Kudeatzea	Ostatuak
Informatika eta Komunikazioak	Mikroinformatika Sistemak eta Sareak	Informatika Sistemak Ustiapena
Instalate- eta mantentze-lanak	Instalazio Termiko eta Fluidoak Proiektuen Garapena	Fluido, Bero eta Manutentzio Instalazioen Proiektuen Garapena
	Instalazio Termikoak eta Fluidoak Mantentzea	Eraikin eta Prozesu Instalazioak Muntatu eta Mantentzea
Elikagaien industriak	Okintza, Gozogintza eta Konfiteria	Gozogintza Pastelgintza eta Okintza Planifikatzea
Kimika	Analisisko eta Kalitate-kontrolako Laborategia	Analisis eta kontrola
Osasuna	Farmazia eta Parafarmazia	Farmazia
Gizarte eta Kultura Zerbitzuak	Haur Hezkuntza	Haur Hezkuntza
Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza	Patroigintza eta Moda	Patroigintza Jantzigintza Industrialeko Prozesuak
	Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak	Karrozeria

2012ko azaroaren 26a, astelehena

LOE ZIKLOAK, 2010-2011 IKASTURTEAN EZARRITAKOAK ETA LOGSE ZIKLOAK ORDEZKATZEN DITUZTENAK

Lanbide arloa	LOE Heziketa Zikloak	Honako LOGSE Ziklo hauen ordeez
Fabrikazio Mekanikoa	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Proiektu Mekanikoen Garapena
Ostalaritza eta turismoa	Bidaia Agentziak eta Ospakizunaren Kudeaketa	Bidaia Agentziak
	Turismo Gidaritza, Informazioa eta Laguntza	Turismo Merkatuaratzea eta Informazioa
Informatika eta Komunikazioak	Sareko Informatika Sistemaren Administrazioa	Informatika Sistemaren Administrazioa
Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza	Jantzigintza eta Moda	Jantzigintza
Garraioa eta Ibigailuen Mantenimendua	Automozioa	Automozioa

2012ko azaroaren 26a, astelehena

III. ERANSKINA

TEKNIKARI ETA GOI MAILAKO TEKNIKARI TITULUAK LORTZEKO PROBAK

2012-2013 ikasturteko deialdia

..... jaunak/andreak
(interesdunaren izen-abizenak)
..... NAN duenak, Euskal Autonomia Erkidegoan matrikulatuak teknikari eta goi-mailako teknikari tituluak lortzeko probetan

ZINPEAN EDO PROMESPEAN AITORTZEN DU:

Ikasturte honetan ez duela aldi berean matrikula egingo titulu bera lortzeko beste hezkuntza-administrazio batek deitutako probetan.

....._(e)n., 20..... ko arena

Izpta.:

..... IKASTETXEKO ZUZENDARIA
(ikastetxearen izena)